



ELUR MOTA GUZTIETAKO ESKI TEKNIKEN IKASTAROA 2010

EGUNAK: otsailak 27 eta 28.

LEKUA: Luz Ardiden eta Bareges-La Mongie,

HELBURU OROKORRA: Elur mota desberdinetan segurtasun handiagoz eta ahalegin txikiagoa eginez jaisteko behar dituen ezagutza teknikoak eman eskiatzaileari.

IKASLEAREN BETEKIZUNAK:

- Federatu izatea, dagokion estalduraz
- Zapaldu gabeko elurrean oinarritzko birakuntza edo zapal dutako elurrean birakuntza paraleloa menderatzea edo mendiko eskizko igoaldiak lehen mailako ikastaroa egina edukitzea.
- Baleko gaitasun fisikoa eta jarduera burutzeko sendagilearen eragozpenik ez edukitzea
- Adinekoa edo adingabea baimenarekin

IKASTAROAREN EDUKIA:

- Biratze oinarritzkoaren teknikak.
- Eski konbentzionaleko teknikak.
- Carving erako biratze teknikak.
- Elur gogorretan biratzeko teknikak.
- Elur bigunetan biratzeko teknikak

MAILA: Espezializazioa. Zapaldu gabeko elurrean oinarritzko birakuntza menderatzea derrigorrezkoa da.

IKASLE KOPURUA: GUTXIENEZ: 15, GEHIENEZ: 27

RATIOA: Irakasle bat 5 edo 8 ikasleko.

PREZIOA: 167 €.

-. Otsailaren 20etik baino lehen izena emanez gero (10% deskontua): 150 €.

Azken eguna inskripzioa egiteko: asteazkena otsailaren 24an.

Prezioaren barne daude:

- Egun bateko ostatua aterpetxean, mantenu erdian.
- Bi eguneko forfaita eski estazioerako.
- Ikastaroaren edukia jasotzen duen txosten teknikoa.
- Parte hartzeko agiria.
- GGMEren material teknikoa erabiltzeko aukera, ARVA eta pala, besteak beste (eskatu egin behar da).

Prezioaren barne EZ daude: -.

- Bidaia.
- Egunez jateko janaria (bi egun).

OHARRA: aterpean ez da derrigorrez ostaturik behar, aterpeko zerbitsuak ez duten erabilten partaideek, ikastaroaren prezioa merkeago izaten da: 135 €

-. Otsailaren 20etik baino lehen izena emanez gero (10% deskontua): 122 €.

NORBANAKOAREN MATERIALA:

- ARVA eta pala.
- Lotarako zakua (aterperako beharrezkoa).
- Berokiak, eguzkitako betaurrekoak, txanoa eta eskularruak.
- Eski bastoiak eta eskiatzeko botak (ez da beharrezkoa mendikoak izatea).
- Bi egunetarako janaria (pikatzeko janaria).

OHARRAK

- Partaide guztiek El Mundo de los Pirineos eta Euskal Herria aldizkariaren ale bat jasoko dute, Federazioaren babesle nagusia den Sua Edizioak-ek opari emanda.

Mendiko zenbait material ere zozketatuko da, Federazioare laguntzaileen eskutik: Aralar Kirolak, Belharra eta Izadi Kirolak.

- Nahitaezkoa da mendian federatuta egotea pirinio frantsesa luzapenarekin

- Eski alpetarraren estaldura konbenigarria da bestela, forfaitarekin doan aseguru ordainduko da (6 €).

-. Ikastaroaren Zuzendaritzak ahalmena izango du egitaraua aldatzeko eguraldiagatik edo beste zernahigatik.

-. Ikastaroaren Zuzendaritzak ahalmena izango du baldintzak edo diziplina arauak betetzen ez dituzten ikasleak ikastarotik kanporatzeko.

-.GGMEk ARVAak eta palak ikasleen eskura jarriko ditu. Izena emateko orria betetzean adierazi beharko dute ikasleek zer behar duten.



LEKUA ETA HITZORDUA

Larunbatean goizeko **9tan**. **LUZ-ARDIDEN**eko estazioaren “**Informazioa-ACCUEILko**” ate bulegoan
Zuzendaria ikasleekin harremanetan jarriko da detaileak zehazteko (bidaiarako autoak, materiala etab.)

Ikasleek izena emateko orrian adierazi beharko dituzte beren telefonoa eta autorik eraman dezaketan. Zuzendariak ikaslearekin harremanetan jartzetik izango ez balu, ikasleak berak jarri beharko du zuzendariarekin harremanetan.

Ikastaroko zuzendaria: Jaime Eguzkitza

TFNO : 615.704.847

IZEN EMATEAK eta INFORMAZIOA:

Gipuzkoako Mendizale Federakundea

Anoetako Estadioa • 20014 Donostia

Tel: 943 461 440 * e-mail: gmf-federatuak@kirolak.net

Astelehen, asteazken eta ostegunetan: 11:00etatik 13:50etara eta 17:00etatik 19:50etara

Matrikularen ordainketa honako kontu korrante honetan sartuz egingo da:

CAJA LABORAL: K/K Zb. 3035.0060.41.0600056348 Gipuzkoako Goi Mendi Eskola

OHARRAK:

- Izen ematea ez da ontzat hartuko sarreraren txartela aurkeztu arte.
- Ikastaro honetan izena emateak araudia eta irakasleen esanak betetzera behartzen du.
- Gerta daitekeen edozein zalantza ikastaroaren Zuzendaritzak argituko du.
- 65% 15 ETA 21 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAKO BEKA (Euskal Mendizale Federakunde barruan federatuta dauden gazteentzako Sustapen Egitaraua).